



**G**izakiok elkarrekiko errespetuan oinarritzen dugu geure elkarbizitza. Pertsona garenez, eskubide berberak ditugula onartzetik abiatzen gara. Bete-bete sinesten dugu geure bateko eta besteko jarrera, estatus, mundu-ikuskeraguztiek dutela lekua egunero eraikitzen dugun topagunean. Eremu askotariko hori eraikitzen duen tresna, finkatzen duena, hitza da. Horregatik da baliotsua. Gure espeziearen bertuterik onenen fruitu da, hala nola diren adimena, arrazoia, komunikazioa, elkar trukaketa, elkar ulertzea eta irekitasuna. Besteekin elkartu nahi eta ahal izatea.

Hitza, gainera, salatzeke erabiltzen denean ere izan daiteke baliotsu, haizearen kontra egiten duenean. Onartzen dugunean hitzaren komunikatzeke gaitasunari ihes egiten diotenekiko ere tresna emankorra izaten jarrai-

tzen duela. Basakeriaren eta arrazoirik ezaren aurrez-aurre jartzen denean. Orduantxe bihurtzen da bake-hazi, herritar izatearen eredu zibiko eta morala. Pedagogia demokratiko eraginkorra. Argi uzten baitu zer alde ikaragarrik bereizten gaituen guk bezala oinarrizko printzipio hori, besteen bizia eta duintasuna errespetatzekoa, onartzen ez dutenengandik.

Fernando Buesak ez zion sekula muzin egin bete-beteko sinesmen horri. Horregatik dira liburu honetan oroitarazten diren hitzak baliotsu bezain ausartak. Ekarpen argiak, beroak, eraginkorrak eta miresgarriak maite izan zuen munduarentzako. Eta agur eta ohore egin behar diegu baita norberaren jarreretatik, hala nola neuretik, hark defendatu zituen gauza batzuetatik oso urrun egonda ere.

Komeni da azken hori azpimarratzea, ze elkarrekiko izan genituen aldeak, ez baitziren eragozpen izan oinarrizko eta ezinbetseko kontuetan. Beti heldu ginen bat indarkeria eta terrorea erabat gaitzesterakoan. Erabat gaitzetsi izan genuen heritza pedagogia gida, inposaketa-tresna makabrogisa erabiltzea. Horregatik izan zen beti erlatiboa geure arteko aldea. Ez zitzaigun ozotopo gertatu elkarrekin gure herriaren oraina eta geroa eraikitzen aritzeko. Ordu asko ematen genituen eztabaidan eta lanean, elkarrekiko errespetuz eta estimuz. Ez zait batere zail egiten Fernando gizon saiatua, argia, bikaina eta langilea izan zela esatea. Haren ekarpenak ikusten ditut neuri egitea suertatu zaizkidan zenbait gauzetan. Neure sena topatzen dut hark sinatu zituen beste batzuetan. Eta gustukoa dut emaitza. Oreka eta harmoniazko ariketa bat da.

Horregatik dira gaur hain baliotsuak haren lekukotasuna eta ibilbidea. Lehenik heriotzaren arbuio erabatekoena erakusten dute eta bere lekuan jartzen dituzte geure askatasuna mehatxatzen duten kriminalak. Fernando eraikitzaile izan zen, ekarle. Hark egindako hainbat gauzak jaraitzen du gurekin. Hark eragindako zerbitzu publikoak, kultura zibikoa, zimentarri moralak, bera hil zutenak ere babesten dituztenak. Haren hiltzaileek balore epikorik bederik ere ez dezakete erakuts. Ez dakigu zer eraikitzen lagundu duten. Bai, ordea, zenbat lan egiten duten denon artean nekez eraikitzen eta defendatzen saiatzen garena hankaz gora botatzen.

Baina, gainera, liburu batez, hitzez, ideiez ohoratuko dugu haren oroimena. Hark egindako lan baketsu eta etengabea jendarteara zabalduz. Inteligentzia-lekukotasun berri batez, Mendekurako deirik ulerkorrena baino askoz ere eraginkorragoa izango baita. Ez dut uste gere kontzientziei keinu

hoberik egin dakiekeenik, tinda eta paper gramu hauen bidez egiten dena baino, hain emankorrak baitira, moralki milaka lehergai-kilogramo baino hain goragokoak. Ez zait bururatzen Pepito Kilkerraren bertsio deserosoa-gorik liburu hau milaka hartzailerengana eramango duen mezulariarena baino. Hartzaile horien artean izango dira, baita ere, 2000ko otsailaren 22an nire bulegotik entzun nuen eztanda haren ondotik, ezagutu eta tratatu zueten gizon haren hilketagatik beren mina eta kondena erakusteko gai izan ez ziren batzuk. Hotzikara sentiaraziko die agian liburuak. Gogoeta eragingo du ziur aski. Nolanahi ere lezio handi bat izango da, hitzaren balioaren ziurtagiri bat.

**L**os seres humanos basamos nuestra convivencia en el mutuo respeto. En la aceptación de que tenemos, como personas, los mismos derechos. En la convicción de que nuestras diferentes posiciones, estatus, cosmovisiones, caben en un espacio de encuentro que construimos cada día. La herramienta que edifica ese territorio plural, la que lo consolida, es la palabra. Por eso es valiosa. Es el producto de las mejores virtudes de nuestra especie, la inteligencia, la razón, la comunicación, el intercambio, la comprensión y la apertura. El deseo y la posibilidad de encontrarse con el otro.

La palabra puede, además, ser valerosa cuando denuncia, cuando vive contra el viento. Cuando se asume que sigue siendo un fértil instrumento incluso con quienes huyen de su capacidad de comunicación. Cuando contrasta con la barbarie, la sinrazón. Entonces se convierte en semilla de paz, en ejemplo cívico y moral de lo que es ciudadanía. En eficaz pedagogía democrática. En evidencia del abismo que nos separa de quienes no comparten con nosotros el básico principio de respetar la vida y la dignidad de los demás.

Fernando Buesa no abandonó nunca esa convicción. Por eso las palabras que se recuerdan en este libro son valiosas y son valerosas. Son una aportación inteligente, apasionada, eficaz y admirable al mundo que quiso. Y merecen homenaje y respeto incluso desde posiciones personales, como la mía, muy distantes de algunas de las cosas que defendió.

Conviene insistir en esa valoración porque las diferencias que mantuvimos no afectaban a lo básico, a lo imprescindible. Compartimos siempre

el rechazo más absoluto a la violencia y el terror. A la muerte como pedagogía, como macabra herramienta de imposición. Por eso nuestra distancia fue siempre relativa. No nos impidió dedicarnos a construir juntos el presente y el futuro del país. Compartimos muchas horas de debates y trabajo, desde el respeto y el afecto. No me cuesta reconocer en Fernando a un hombre tenaz, inteligente, brillante y trabajador. Reconozco sus aportaciones en algunas de las cosas que me ha tocado hacer. Percibo mi sensibilidad en otras que él firmó. Y el resultado me gusta. Es un ejercicio de equilibrio y de armonía.

Por eso su testimonio y trayectoria resultan hoy tan valiosos. En primer lugar constituyen la más tremenda descalificación de la muerte y colocan en su exacto lugar a los criminales que amenazan nuestra libertad. Fernando construyó, aportó. Muchas de sus realizaciones siguen con nosotros. Dieron origen a servicios públicos, a cultura cívica, a cimientos morales, que cobijan incluso a quienes le mataron. Sus asesinos no pueden exhibir siquiera el mérito del valor épico. Nada se sabe de lo que han ayudado a poner en pie. Sí tenemos conocimiento, en cambio, de lo mucho que trabajan por derribar lo que dificultosamente tratamos de levantar y defender entre todos.

Pero además su memoria se honra con un libro, con palabras, con ideas. Con una difusión del trabajo pacífico y tenaz que realizó. Con un nuevo testimonio de inteligencia mucho más eficaz que la más comprensible de las apelaciones a la venganza. No concibo mayor guiño a nuestras conciencias que estos gramos de tinta y papel, tan fértiles, moralmente tan superiores a miles de kilogramos de explosivos. No se me ocurre más incómoda versión de Pepito Grillo que el mensajero que llevará el sobre con este libro a miles de destinatarios. Entre ellos incluso figurarán algunas personas que, tras aquel estallido que oí desde mi despacho el 22 de febrero de 2000, no fueron capaces siquiera de mostrar su dolor y condena por el asesinato de un hombre que conocieron y trataron. Quizá el tomo les genere un escalofrío. Seguro que origina una reflexión. En todo caso será una enorme lección, un certificado del valor de la palabra ■

■ **JUAN MARÍA ATUTXA**  
Eusko Legebiltzarraren Lehendakaria  
Presidente del Parlamento Vasco